

ZATOZ ETA BIZI ZAITE!

1. Urte gehiago bizi nahi dogu,
nor ez da horren egarri?
Sekretotxo bat badogu, baina
ezetz behingoan igarri!
Betoz urte gehiago,
bai eta beteago;
nola leiken zaharra-barri...
Horra zelango laguntza ona
"Bizian gorak" ekarri.

3. Jubiladu bat, kristau-bizitzan
ez leiteke jublatu,
argi gorritan ez gelditzeko
ez zimendu, ez teilatu.
"Bizian goran" sartu,
talde baten alkartu
eta laguntza bilatu.
Eta Jesusek aitatzen ditun
ondasun onak pilatu.

5. Sasoi batera heldu ezkerro,
gaitz danak datoz batera,
gorputzezkoak asko dirala,
arimazkoak gainera...
Nahi badozu osatu
ta barrua gozatu,
"Bizian gora" aukera:
gatxik gatxena osatzekorik
bakarrik bat: JESUS BERA.

2. Bizibidean danok nahi dogu
bizi hartuemonean,
hare gehiago bat zahartzaroan
bakar xamar dagonean.
Hona "Bizian gora"
datorkizu ondora,
gaur borondate onean.
Lagunartean biziko zara
daiteken zorionean.

4. Ni jublatu bat nazala-ta,
dana ete jat amaitu?
Bizitz-atal hau zertarako da:
hausnar egin ta gogaitu?
Zer da erretirua,
buruari tirua?
Honek harritu al zaitu?
"Bizian goran" martxan sartuta
azkenerarte jarraitu.

6. Mundu barrian noraezean
hortxe baztarrean jota,
aitita-amamak sentitzen dabe
egundainoko porrota.
Ene adiskidea,
hartu salbabidea
eta bildur horreik bota;
"Bizian goran" salbatu baietz
gutzat jarrita dago-ta.

A. Martzel